

Bortziriak-Malerreka-Bertizarana eskualdean Tokiko Garapen Agente bat kontratatzeko aukeraketa-prozesua.

Cederna Garalur Elkarteak Bortziriak-Malerreka-Bertizarana eskualderako pertsona bat kontratatu nahi du garapen agente lanak egin ditzan beste pertsona baten hainbat hilabeteko lan-utzialdia betez. Denbora hori igarota, aukera izan lezake erakundearen lanean jarraitzeko. Lanpostu berria urtarrilean hasieran hasiko da lanean.

Lana honetan datza, besteak beste: udalei eta tokian tokiko eragile pribatuei arreta egin eta aholku eman, gizartearen dinamizatzeko ekimenak garatu, proiektu berriak diseinatu eta eskualdean ideia berriak antzeman.

CVak, hizkuntza-titulazioen kopia konpultsatuta eta lan-bizitzaren ziurtagiria info@cederna.es helbidera bidaliko dira, eta mezuaren izenburua "Bortziriak-Malerreka-Bertizaranako garapen agente" izanen da. Epea 2019ko azaroaren 29an, 14:00etan, bukatuko da. Argibide gehiago www.cederna.eu/eus/ webgunean, edo 948 20 66 97 telefono-zenbakira deituta.

Prozesuak hiru etapa aurreikusten ditu, eta honako balorazio-portzentajea:

- 1.- Curriculum Vitae: % 15
- 2.- Proba teknikoa: % 50
- 3.- Elkarrizketa: % 35

1.- Curriculum Vitaearen balorazioa.

Eskatutako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten curriculum guztiak puntuatuko dira:

- Unibertsitate-titulua.
- Euskara; gutxieneko maila C1.
- Gidabaimena; B1

Baloratuko da:

- Lanpostuarekin lotura duen prestakuntza:
 - Unibertsitate-tituluz gain, prestakuntza akademiko osagarria.
 - Hizkuntzak (euskaraz gain, frantsesa eta ingelesa ere baloratuko dira).
 - Bulegotikako eta IKTBen inguruko ezagutzak.
- Esperientzia
 - Antzeko lanpostuetan duen esperientzia; lan-urteak.
 - Bestelako lanpostuetan duen esperientzia; lan-urteak.

Lantalde tekniko batek curriculumak puntuatuko ditu eta gehienez 15 hautatuko dira idatzizko azterketarako.

2.- Idatzizko azterketa.

Lanpostuari buruzko hainbat galdera egingen dira. Zehazki, honako hauek izanen dira gaiak:

- Cederna Garalur Elkarte
- Nafarroako Mendialdea eta Bortziriak-Malerreka-Bertizarana eskualdea
- Landa-garapenaren inguruko ezagutzak: politikak, programak
- Eskualde-mailako plangintza
- Toki-garapenerako eragile baten kontzeptuak eta eginkizunak

Azken fasera pasako dira proban puntuazio onena lortuko duten sei pertsonak.

3.- Elkarrizketa

Bost lagunek osaturiko epaimahaia eratuko da, eta horiek erakundeko eta lurraldeko ordezkariak izanen dira.

Elkarrizketan honako hauek baloratuko dira:

- Lantaldeak koordinatzeko eta dinamizatzeko gaitasuna
- Erantzukizuna
- Autonomia, erabakitzeko gaitasuna
- Antolatzeko eta plangintzak egiteko gaitasuna
- Iniziatiba
- Lanpostuagatiko motibazioa

Aukeraketa-prozesuko azken puntuazioa egindako probetan erdietsitako puntuak batuta lortuko da. Ez dute lanposturako aukerarik izanen hiru hautaprobak gainditzen ez dituztenek.

Proba bakoitzaren puntuazioak % 100aren gainean baloratuko dira, eta puntuazioa berriz emanen da zenbaketa orokorrean proba bakoitzerako ezarritako portzentajearen arabera, lehen atalean jasotakoari jarraituz.

Antsoainen, 2019ko azaroaren 15ean.

